


## 7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta, azkenik, diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure enpresak.

Izango ditugun baliabide fisiko garrantzitsuenak kamioi bat, liburuak, gasolina, gidaria(k) eta armairuak izango dira.



Baliabide intelektualei dagokinez, alde batetik, patenterik ez dago eta gure enpresak kontu guztiak eramateko aplikazio bat erabiliko du. Digitalki egingo ditugu aurrekontuak, mozkinen kontuak...

Eta beste alde batetik, enpresari bakoitzak ezagutzak izango ditu alderdi desberdinetan. Cristina Poderosok, adibidez, liburuei buruzko ezagutza asko ditu, bere bizitzan askotan egin dituelako liburutegietan laguntzeko lanak. Gero, Asier Suarezek, informatikako kurtso bat egin du, orduan teknologian arazoren bat balego, bera gai izango litzateke arazoa konpontzeko. June Talaverak, aldiz, enpresa munduan lan egiten duten familiarrak ditu, eta orduan, marketing eta publizitate estrategia batzuk ezagutzen ditu, eta hau lagungarria izango da gure mozkinak maximizatzeko. Nahia Lopezek, aldiz, jendearekin komunikatzeko erreztasun handia du, eta hau abantaila handia da horrela jendeari erakartzeko.

Giza baliabideei dagokionez guztion kargu izango da. Bertan hautapen-prozesua burutu, lanpostuak zehatz definitu, ordainsariak eta lan-kontratuak bestelako zehaztapenak ezarri, trebakuntza antolatu, lan-segurtasuna bermatu, langileen beraien arteko harremanak bideratu, langileek enpresarekin duten harremana garatu eta langileek pertsona moduan eta enpresaren baitan duten problematika konpontzea du helburu.

Finantza baliabideak, zenbat diru behar dugun zehazten du. Kostuetako taula bat egin dugu, eta mozkinak izateko inbertsioa berreskuratu eta mozkinak atera behar ditugu. Hasieran mailegu bat eskatuko dogu eta gutxinaka ordainduko dugu.

Jarduerak kontuan izanda, June kontabilitateaz, marketing eta publizitate estrategietaz arduratuko da, Asier udaletxeekin eta sektoreekin harremanetaz, Cristina bidaien eta zerbitzuen koordinazioaz eta Nahiak bezeroari atenzioa eskeini eta sare sozialetaz arduratuko da (hor barruan gure web gunea sartuko litzateke.)

